


BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN ZENTSUAK ETA HEZKUNTZAREN UDAL ESTATISTIKA.
2021

Titulazio ofiziala duten Euskal AEko biztanle kopuruak 1,5 puntu egin du gora, 2011ren eta 2021aren artean

Emakumeen % 25,6k unibertsitate-titulazioa dute, eta, gizonetan, % 20,2k

Euskal AEn bizi diren 16 urteko eta gehiagoko 1.877.675 pertsonak, % 95,9k, hezkuntzako titulu ofizialen bat dute 2021ean, Eustaten datuen arabera. Alegia, ehuneko 3 hamarren egin du gora kopuruak, aurreko urtearekin alderatuta, eta ehuneko 1,5 puntu, 2011rekin alderatuta (1.764.462 pertsona).

Euskal AEko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera, titulazio-mailaren arabera



2021ean, 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, titulazio-mailen arabera, honako hau izan da: 585.884 pertsonak lehen mailako ikasketak amaitu dituzte, biztanle horien % 31,2k; alegia, titulazio-kategoria horretan zazpi puntuko eta hamarren bateko murrizketa egon da, 2011rekin alderatuta. 418.129 pertsonak bigarren mailako ikasketak amaitu dituzte, biztanleria osoaren % 22,3k; alegia, kopuruak ehuneko 2,3 puntu egin du gora azken hamar urteotan. 161.859 pertsona oinarrizko eta/edo erdi-mailako lanbide-heziketako tituludunak dira, % 8,6; alegia, 2011n baino ehuneko 1,6 puntu gehiago.

Azkenik, goi-mailako hezkuntzari dagokionez, % 23k amaituta ditu unibertsitate-ikasketak (431.953 pertsona), 2011n baino ehuneko 3,4 puntu gehiago, eta % 10,8k, goi-mailako lanbide-heziketa (ehuneko 1,3 puntu gehiago). Horrek esan nahi du goi-mailako ikasketak dituzten biztanleetan, profesionalak edo unibertsitatekoak izan – alegia, 2021ean % 33,8–, ehuneko 4,7 puntu igo dela, 2011rekin alderatuta. Aurreko urtearekin, 2020arekin, alderatuz gero, desberdintasuna ehuneko lau hamarren gehiagokoa da.

Lurralde-mailako aldeak urriak izanik ere, Gipuzkoan lanbide-heziketako tituludunen proportzio handiagoa dago; lehen eta bigarren mailako ikasketadunak Araban, eta unibertsitate-ikasketadunak Bizkaian

Titulazioen bat duten 16 urteko eta gehiagoko biztanleen gainean lurralde historikoen arabera ehunekoak oso txikiak dira. Hala ere, Araban bigarren mailako ikasketadunen proportzio handiagoa dago, % 23koa, eta Gipuzkoan % 22,4koa eta Bizkaian % 22koa. Era berean, Araba da lehen mailako ikasketen proportzio handiena duen lurraldea, % 32,4, eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 31,2 eta % 30,6, hurrenez hurren. Aldi berean, Bizkaian ohikoagoa da unibertsitate-ikasketen maila, % 24,1, eta Gipuzkoan eta Araban % 22,3 eta % 20,7, hurrenez hurren. Azkenik, lurralde-maila honetan, lanbide-ikasketak, oinarritzkoak edo goi-mailakoak izan, ohikoagoak dira Gipuzkoan, % 11,6 goi-mailakoen kasuan eta % 9 oinarritzkoen kasuan; Araban, % 11,2 eta % 8,7, hurrenez hurren, eta, Bizkaian, are baxuagoak, % 10,2 eta % 8,4koak.

Ikasketen banaketak, eskualdeen arabera, berriz, alde handiagoak ditu lurraldeen arabera baino. Ikasketa-maila altuena kontuan hartuta, unibertsitate-titulazioei dagokiena, honako hauek dira hiru eskualde nabarmenenak: Plentzia-Mungia, 16 urtetik gorako biztanleen % 31,9rekin; Donostialdea, % 25,2rekin, eta Bilbo Handia, % 24,6rekin. Biztanleen % 20 edo gehiago unibertsitate-tituladuna duten beste eskualde batzuk: Gorbeialdea (% 23,7), Gernika-Bermeo (% 23,5), Urola Kosta (% 22,2), Arabako Lautada (% 21,5), Debagoiena (% 20,8) eta Arratia-Nerbioi (% 20,4).

Bigarren mailako ikasketen titulazio-mailan daude eskualdeen arteko alde nabarmenenak ('titulaziorik gabe' kategorian alde batera utzita). Hala, eskualde nabarmenenak –Plentzia-Mungia (% 24,9), Bidasoa Beherea (% 24,6) eta Arabako Errioxa (% 23,6)– eta proportzio txikiak dutenak –Durangaldea eta Arabako Mendialdea, bi kasuetan % 19,2– artean, ehuneko sei puntuko alde baino ez dago.

Lanbide-ikasketen titulazioei dagokienez, Debabarrena, Enkartzioak eta Gorbeialdea eta Debagoiena nabarmenak dira (% 23,4, % 22,9, % 22,9 eta % 22,8, hurrenez hurren). Kontrara, lanbide-titulazio gutxiak duten eskualdeen artean, Arabako Errioxa (% 15,9), Bilbo Handia (% 17,9) eta Plentzia-Mungia (% 18,2) daude.

Azkenik, lehen mailako titulazio kopuru handiena duten eskualdeak honako hauek dira: Arabako Errioxa (% 41,8), Arabako Mendialdea (% 41,1), Añana (% 37,7), Enkartzioak (% 36,6) eta Arabako Kantaurialdea (% 36).


Unibertsitate-ikasketen titulazio-mailaren inguruko udal-rankingei buruz Getxo eta Sukarrieta dira (% 42,2 eta % 41,8, hurrenez hurren). Hamaseigarren postuan dago Bizkaitik kanpoko lehen udalerria, Donostia, 16 urtetik gorakoak % 31,8 baitira unibertsitate-tituladunak. Lurraldeko beste bi hiriburuei dagokienez, Bilbori % 27,7 dagokio, eta, Gasteizi, % 21,9. Bestalde, bigarren mailako titulazioetan ere, Bizkaiko udalerriak nagusitzen dira: Gatika, % 31; Plentzia, % 28,9, eta Laukiz, % 28,4. Lanbide-heziketako titulazioen kasuan, lehen postuetan Galdames (% 30,4), Irura (% 28,5) eta Arama (% 28,4) daude.

Emakume gehiago unibertsitate-titulazioarekin eta gizon gehiago lanbide-heziketarekin

Analisian sexuaren aldagaia sartzen badugu, gizonak eta emakumeak antzeko proportzioak dituzte goi-mailako titulazioetan, unibertsitatekoa eta goi-mailako lanbide-heziketakoak barne (% 34,2 eta % 33,5, hurrenez hurren). Hala ere, gizonetan, lanbide-heziketako titulazioak (edozein mailatakoak) % 23,1 dira; proportzio hori emakumeena baino handiagoa da (% 16,1). Kontrara, emakumeetan unibertsitate-titulazioak ohikoagoak dira (% 25,6) gizonetan baino (% 20,2).

Azkenik, lehen mailako titulazioen proportzioetan sexuaren arabera aldeak honako hauek izan dira: emakumeen % 32,5 eta gizonen % 29,8. Eta, bigarren mailakoetan, % 21,4 eta % 23,2koak, hurrenez hurren. Aldeak kasu bietan dira neurritzkoak, eta emakumeen aldekoak lehen kasuan eta gizonen aldekoak, bigarrenetan.

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, titulazioaren eta sexuaren arabera. 2011 eta 2021



Gure erkidegoko hezkuntza-mailaren azken adierazlea analfabetismoaren tasa izango litzateke. 2021ean, adierazle horrek hondar-maila izan du, eta 10 urteko eta gehiagoko biztanleetan % 0,3koa baino ez da izan (6.000 pertsona inguru): % 0,2koa, gizonen kasuan, eta % 0,4koa, emakumeen kasuan.

Logikoa denez, adin nagusikoenetan kontzentratzen da; hala, 65 urtera arte % 0,1koa da tasa eta, adin horretatik aurrera, % 0,8koa. 65 urteko eta gehiagoko emakumeak % 1eko analfabetismo-tasa dute, eta gizonak, adin-talde berean, % 0,4koa. Alegia, nabarmen murriztu dira kopuru horiek 2011tik, % 2,1koa baitzen 65 urteko eta gehiagoko emakumeetan eta % 0,8koa, gizonetan.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62